

ERASMUS+ PLAZA EMAN ETA ONARTU ONDOREN EGIN BEHARREKOAK

1. GARRANTZITZUA
2. EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOIA
 - 2.1. Mugikortasuna hasi baino lehen
 - 2.1.1. Konpromiso akademikoa eta matrikula
 - 2.1.2. Erasmus+ diru-laguntzen kontratua (Sepie beka)
 - 2.1.3. Istripu eta aberriratze aseguruak
 - 2.2. Mugikortasuna hastean
 - 2.2.1. Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria
 - 2.3. Mugikortasuna amaitzean
 - 2.3.1. Certificate of attendance / Egonaldi amaierako ziurtagiria
 - 2.3.2. Erasmus+ ikaslearen azken txostena
 - 2.4. Dokumentazioaren laburpen-taula
3. DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOA
4. OLS HIZKUNTZA PROBA
5. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"
6. BEKAK

1. GARRANTZITZUA

Behin eman zaizun mugikortasuna onartu eta gero, zure eskaeraren egoera kontsulta dezakezu GAUR profilaren bidez, GAUR-UNIBERTSITATE-TRUKEA-KONTSULTAK-EGINDAKO ESKAERAK. Baliteke inprimaki batzuk egonaldian zehar gaitzea. Horretarako, onartutako mugikortasuna hautatu behar duzu.

Mugikortasun-programako zure parte-hartzea behar bezala izapidetzea 3. Puntuako

dokumentuak Leioako Nazioarteko Harremanetako Bulegora (ORI) (movilidad.internacional@ehu.eus) epeetan bidaltzearen baitan egongo da. Dokumentu horietakoren bat ez aurkezteak programan parte hartzeko eskubideak galtzea eta ikasketa- kontratua eta diru-laguntzaren kontratua ezeztatzea eragin dezake.

Oso garrantzitsua da kontaktu gisa eman duzun posta elektronikoa martxan edukitzea eta maiz berrikus dezazula, ORI ikasleekin komunikatzeko modua delako.

Maiz kontsultatu Errektoreordetzaren webgunea. Baliteke inprimaki batzuk egonaldian zehar prestatzea, eta baliteke ere beste inprimakiren bat sartzea.

Erasmus+ mugikortasuna emateak Sepiek ezarritako laguntza ekonomiko automatikoa dakar. Hura hautemateko, ikasleek ezarritako dokumentu-prozedurak bete beharko dituzte (ikus 2.4 puntua).

GAUR-UNIBERTSITATE-TRUKEA-KONTSULTAK-EGINDAKO ESKAERAK

Eskabide ONARTUA hautatu

Eskaera-zk.	30786	Inprimakia				
Lehentasun-zk.	Programa	Helmugako unibertsitatea	Iraupena	Lauhileko-zk.	Egoera	Eskaera-data
<input type="radio"/> 1	Erasmus +	ALMA MATER STUDIORUM - UNIVERSITA DI BOLOGNA (Italia)	12 Hilab		Piazarik gabe	2020/11/24
<input type="radio"/> 2		UNIVERSITA DEGLI STUDI DI BARI ALDO MORO (Italia)	10 Hilab		Piazarik gabe	2020/11/24
<input type="radio"/> 3		UNIVERSITA DEGLI STUDI DI SASSARI (Italia)	9 Hilab		Baztertua	2020/11/24
<input type="radio"/> 4	Bestelako helmugek	Universidad Interamericana de Puerto Rico (Puerto Rico)	1 Lauhi	1	Aukera lehenetsiagatik baztertua	2020/11/24
<input type="radio"/> 5	Erasmus +	UNIVERSIDADE LUSÓFONA DO PORTO -- COFAC (Portugal)	10 Hilab		Uko egitea	2020/11/24
<input type="radio"/> 6		INSTITUTO POLITÉCNICO DE SETÚBAL (Portugal)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertua	2020/11/24
<input type="radio"/> 7	Latino-Amerika	Universidad de Costa Rica (Costa Rica)	1 Lauhi	1	Aukera lehenetsiagatik baztertua	2020/11/24
<input checked="" type="radio"/> 8	Erasmus +	UNIVERSITA DEGLI STUDI DI SASSARI (Italia)	5 Hilab	1	Baldintzak onartuta	2021/03/23

Dokumentazioa	
JARRAIBIDEAK	Deskargatu
IKASLEEN BETEBEHARRAK	Deskargatu
HELBURUKO IKASTEGIARI BIDALTZEKO INSKRIPZIOA	Deskargatu
ISTRIPU ETA ABERRIRATZE-ASEGURU BAT SINATZEA	Deskargatu
ERASMUS IKASLEAREN GUTUNA	Deskargatu
IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA	Deskargatu
ERASMUS GOMENDIOAK	Deskargatu
EUSKO JAURLARITZAKO DIRULAGUNTZA ESPRESUKI BAIMENA	Deskargatu
AYUDAS ECONÓMICAS	Deskargatu
UPV/EHUK ESKAINTZEN DUEN ASEGURUA SINATZEA	Deskargatu
HASIERAKO ZIURTAGIRIA	Deskargatu
AMAIERAKO ZIURTAGIRIA	Deskargatu

Xehetasunak	Ziurtagiriak	Uko egitea
-----------------------------	------------------------------	----------------------------

IMPRIMAKIA: ikaslearen eskaera inprima daiteke

ZIURTAGIRIAK: Programako ikaslearen kredentziala gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez inprima daiteke.

UKO EGITEA: Mugikortasunari uko egiteko

XEHETASUNAK: Ikasleak mugikortasunaren jarraipena egin dezake, Nazioarteko Harremanetarako Bulegora bidaltzen dituen inprimakien harrera kontsultatuz: 1. Blokea, egonaldiaren jarraipenaren dokumentuak, eta 2. Blokea, eskaera egin zuenean balioetsi beharreko dokumentazioa.

2. EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOIA

2.1. Mugikortasuna hasi **baino lehen**

2.1.1. **Konpromiso akademikoa eta matrikula**

Behin zure helmuga jakiten duzunean, zure ikastegiko koordinatzailearekin harremanetan jarriko zara ikasketa-gaiekin zerikusia duten xehetasunak eztabaidatzeko eta **EWP aplikazioaren bitartez**, ONLINE LEARNING AGREEMENT / KONPROMISO AKADEMIKOA betetzeko. Horretarako, kontuan hartuko dira ikaslearen betebeharretan adierazitako jarraibideak, elkartruke-programetan parte hartzeko arauak eta mugikortasun-programaren deialdiko oinarriak.

Konpromiso akademikoa egin ezean, UPV/EHUko ikasle gisa matrikulatuta agertuko zara, baina EZ trukeko ikasle gisa. Hartara, ezin izango dituzu baliozkotzeak egin, eta ez da inon agertuko mugikortasun-programa batean parte hartu duzula.

Matrikula UPV/EHUn egingo duzu automatrikulako sistemaren bidez, argitaratzen diren datetan.

Konpromisoaren bertsio digitala baliozko bertsioa da, eta nahitaezkoa da Erasmus+ programan.

Garrantzitsua da konpromiso akademikoaren edozein aldaketa zure koordinatzaileari jakinaraztea; baita aldatzeko asmoa ere.

2.1.2. Erasmus+ diru-laguntzen kontratua (Erasmus+ ikasketetarako mugikortasun luzeak (Sepie beka))

Hitzarmen honen bidez, Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) bidez izapidetutako Europako Batzordearen laguntza ekonomikoa eskuratzen da. Irakurri, bete eta sinatu ondoren, Leioako Nazioarteko Harremanetarako Bulegora (ORI) itzuliko da, izapidetzeko.

Hitzarmena pertsonala eta besterenezina da, eta zuzenean bidaliko zaio ikasle bakoitzari posta elektronikoko bidez.

Laguntza ekonomikoa hori automatikoa den arren, ikasleek hura jasotzeko ezarritako prozedura dokumentalak bete beharko dituzte.

Eskaera egitean adierazitako kontu-zenbakian sartuko zaio laguntza onuradunari. Lehenengo ordainketan, EBren Erasmus+ funtsetatik eskuratutako zenbatekoaren **%70ren kopuru baliokidea** ordainduko dizugu: kobratu ahal izateko ikasleak honako agiriak behar bezala beteta eta sinatuta bidali beharko ditu UPV/EHUko Leioako Nazioarteko Harremanetarako bulegora: Erasmus diru-laguntzen kontratua, harrera-unibertsitatean hasi dela egiaztatzen duen hasierako ziurtagiria, egonaldiko

denboraldi OSOA estaltzen duen istripu eta aberriratzeko mediku-aseguru gehigarriaren frogagiriaren kopia (koordinatzailearen bidez). Halaber, ordainketa egiteko, ikasleak GAUR bidez eginda izan beharko du behin behineko edo behin betiko konpromiso akademikoa.

Gainerako **%30 jasotzeko**, berriz, egonaldiaren amaierako ziurtagiria bidali beharko diozu UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoari eta EBren galdetegia beteta eduki beharko duzu.

Beka kontzeptu gisa sartu beharreko zenbatekoa izango da SEPIEK komunikatutako zenbatekoa eta emandako hilabete kopurua biderkatuz ateratako emaitza, baina ZAZPI HILABETE BAINO EZ DUTE FINANTZATUKO. CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak egiaztatze eta, kasuan kasu, Nazioarteko Harremanetako bulegotik eska daiteke egiaztatu ez diren hilabeteengatik jaso diren diru laguntzen zenbatekoa itzultzeko.

Webgunean, SEPIEk herrialde talde bakoitzerako ezarritako zenbateko ekonomikoaren taula dago, bakoitzaren maila ekonomikoaren arabera.

2.1.3. Istripu eta aberriratzeko aseguruak

Atzerrira joan aurretik:

- 1) **Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela** eskuratu beharko da eta
- 2) Bidaiarako **aseguru gehigarri bat** egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratzeko, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. Aseguru horen ordainketaren kopia bat aurkeztu beharko da koordinatzaileak Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatu ahal izateko. Aseguruaren kopia hau aurkezten EZ bada, ez da Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatuko eta ikaslea programatik at geratuko da eta salbuetsita geratuko da Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa- prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

Aseguruaren eskakizunei buruzko informazio gehiago duzu webgunean.

2.2. Mugikortasuna hastean

2.2.1. Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria

Zure GAUREn bitartez inprima dezakezu.

Helmugako unibertsitatean sartzen zarenetik **hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, erakunde horretan sartu zareneko data berresten duena.

Behin entregatzeko epea bukatu eta **Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako dokumentua jaso ez bada, programatik ken daiteke aitorpen akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da**, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

[Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia hasi baino lehenagokoa.](#)

2.3. Mugikortasuna amaitzean

2.3.1. Certificate of attendance /Egonaldi amaierako ziurtagiria

Zure GAUren bitartez inprima dezakezu.

Helmugako unibertsitatean egindako egonaldia bukatzen duzunik **hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu posta NHB helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, egonaldiaren amaiera eta egonaldiaren hasierako eta bukaerako datak berresten dituen.

Behin entregatzeko epea bukatu eta **Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako dokumentua jaso ez bada, programatik ken daiteke aitorpen akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da**, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun- programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

[Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia amaitu baino lehenagokoa.](#)

2.3.2. Erasmus+ ikaslearen azken txostena

Mugikortasuna amaitzean, **nahitaez** osatu behar da Erasmus+ Ikaslearen Azken Txostena. ORIk bidaltzen duzuen egonaldi amaierako ziurtagiria erregistratzen duenean, mezu bat iritsiko zaizue zuen ikasle postara, hura betetzeko esteka eta guzti. 30 egun dituzue mezu hori jasotzen duzuenetik.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, zure posta helbideari adi egoteko eskatzen dizugu.

Mezu elektronikoa bat jasoko duzue zure eskaeran agertzen den posta helbidean, eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu helbidetik (letra xehez), inkesta bete dezazuen. Spam karpeta irits daiteke. Txosten hau **on line** bete behar duzue.

De: eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu

Asunto: Solicitud de informe individual del participante Erasmus+ / Erasmus+ individual participant report request /

Behin egiteko epe hori amaituta eta dokumentu hori NHBn jaso ezean, programatik ken daiteke, aitopen akademikorik gabe, laguntza ekonomikoak kobratu gabe eta penalizazioarekin.

2.4. Dokumentazioaren laburpen-taula

Bekaren lehen ordainketa jasotzeko kudeatzea (70%)	Mugikortasuna hasi AURRETIK	Konpromiso akademikoa eta matrikula	Ikastetxeko edo fakultateko Koordinatzailearekin harremanetan jarri
		Asegurua eta Europako Osasun Txartela	Bidali Ikastetxeko edo fakultateko Koordinatzaileari
		Erasmus+ diru-laguntza hitzarmena (Sepie beka)	Bidali Nazioarteko Harremanetarako bulegoari nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus
	Mugikortasuna HASTEAN	Hasierako ziurtagiria/ Certificate of arrival	Bidali Nazioarteko Harremanetarako bulegoari nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus
Bekaren bigarren ordainketa jasotzeko kudeatzea (30%)	Mugikortasuna AMAITZEAN	Amaierako ziurtagiria/ Certificate of attendance	Bidali Nazioarteko Harremanetarako bulegoari nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus
		Erasmus+ ikaslearen azken txostena	eu-corporate-notificationsystem@ec.europa.eu helbideko mezu elektronikoa bat jasoko duzue, inkesta egiteko estekarekin

3. DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOIA

- Erasmus+ ikasleentzako gutuna

Arretaz irakurri zure eskubideak eta betebeharrak

- **Helmugarako inskripzio-orria**

Ez da beharrezkoa kasu guztietan. Kontsultatu zure ikastegiko koordinatzailearekin eta, **BEHARREZKOA BADA**, inprimatu, bete eta eman koordinatzaileari helmugako unibertsitatera bidal dezan, berak eska diezazukeen dokumentazio gehigarriarekin batera.

- **Ziurtagiria**

Egonaldi-esleipena justifikatzeko ziurtagiria. Zure GAUR profilaren bidez inprimatu dezakezu, **ZIURTATUAK** botoia.

4. OLS HIZKUNTZA PROBA

2023-24 deialdian OLS proba egitea **aukerakoa** da. Ez da baldintza bat Sepie beka lortzeko.

Derrigorrezko baldintza ez den arren, OLS plataformaren bidez doako ikastaroak egin ditzakezue hainbat hizkuntzatan, bai mugikortasunaren hizkuntza hobetzeko, bai hizkuntza berri batean murgiltzeko.

Horretarako, Nazioarteko Harremanetarako Bulegotik, ols.internacional@ehu.eus helbidetik, argibideak bidaliko dizkizuegu (mugikortasuna hasi baino hilabete lehenago) posta elektronikoz (posta pertsonalera) plataforman sartu eta esploratzen hasteko.

Hizkuntza bat ikasteko edo hobetzeko aukera ona da, eta hizkuntza hori egitera animatzen zaituztegu.

5. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak MAECeko bidaiarien erregistroan izena emateko gomendatzen du. Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren zerbitzu elektronikoa honetan ikasleak harremanetarako datuak eguneratu ahal izango ditu, premiazko kasuetan haiekin harremanetan jarri ahal izateko.

<https://www.exteriores.gob.es/es/ServiciosAlCiudadano/Paginas/Registro-de-viajeros.aspx>

6. BEKAK

Zure mugikortasunari dagozkion bekei buruzko informazioa UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren webguneko [Laguntza ekonomikoen](#) atalean kontsultatu ahal izango duzu, **laguntza ekonomikoen erlaitza kontsultatzen**



Nazioarteko Harremanen webgunean, deialdiak ezagutu ondoren gaitzen denean.

NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO BULEGOA

Sarriena auzoa z/g, Bibliotekako eraikina, 2.solairua
48940 Leioa (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 601 2000
E-maila: movilidad.internacional@ehu.eus